

Oiangu: hautsak harrotu dituen proiektua

Herrian ezaguna da Udalak aho batez onartu zuen egitasmoa. Horren aurrean iritzi desberdinak sortu dira eta baita egitasmo horrekin ados ez daudenen plataforma bat sortu ere. Plataforma horri eta Oianguko proiektua gauzatu zuen enpresa sustatzaileari galdera batzuk egin dizkiegu. Hona hemen erantzuna.

1. ZEIN DA OIANGUREN EGOERA?
2. NOLA BALORATZEN DUZUEN UDALAK ONARTU DUEN PROIEKTUA?
3. BA AL ZEGOEN BESTE ERABILERA EGOKIRIK EGITERIK?

Enpresa sustatzailea

1. Parkea ondo dago baina ez da behar adina erabiltzen. Gainera, ordiziar askok ez ditu bertako eremuak eta benetako hedadura ezagutzen. Urtaro zehatz batean bakarrik erabiltzen da. Eta mantenduari dagokionez, ekonomikoki jasangaitza da urte osoan erabiltzeko aktibitateak antolatzen ez badira.

2. Positiboa da. Parkearen egoera ikusita, norbaitek kargu hartu behar zuen. Bestalde, proiektuan Ordiziak behar dituen hainbat hutsune betetzera datozen jarduera berriak sortzen dira: hotela, ezkontzetako-eta jatetxea, golf zelaia, paint-ball... Aktibitate horiei esker, lanpostuak sortu eta parkearen mantentzea askoz ere hobea izango da.

3. Oraingo erabilera guztiak mantendu eta gainera beste aktibitate batzuk burutu ahal izango dira. Beste ekimen batzuk ere baudeuden -golf handi bat egiteko, zaldiekin ere zerbait egiteko...- eta beste batzuek ere badute beren lekua -tiroko zelaia, kanping bat, egurrezko etxolak...-. Baina gure proiektuak irabazi du lehiketa eta badirudi Goierriko jendeak gutxienez bi kirol berri prezio merkeetan ezagutzeko beta izango duela: golfa eta paint-ball-a.

Oiango Publiko eta Bizirik Plataforma

1. Orain arteko erabilera orokorrean ondo badago ere, hobetu daiteke. Instalazioak, esaterako. Faltan botatzen ditugu parkeari buruzko informazioa eta ingurune hori ezagutzeko ekintzak. Mantenduari dagokionez, Udalak gutxienekoa soilik bete du. Badirudi hori arazo bihurtu zaiola: urtean 9.616 euro kostatzen zaio, eta ez du baloratzen herritarroei eskaintzen digun zerbitzua.

2. Adjudikazioa egiteko modua desegokia izan da. Ideien lehiaketa antolatu beharrean, zuzenean kontzesioa atera zu-



Oianguren irudi bat. Litekeena da etorkizunean oso bestelako itxura izatea.

ten, nahiz eta proiektu hori burutzeko arau subsidiarioak aldatu eta Foru Aldundiaren onepena behar den. Aldundiak ez dio oraindik egitasmoari argi berdea eman. Negatibotzat jotzen dugu herritarren partehartzerik izan ez eta orain arte publikoari irekiak izan diren gunen erdiak pribatizatu egingo direlako. Proiektuaren ezaugarriak ere kezkatzen gaituzte: izan ere, ur nola energia kontsu-

moak handitu egingo dira, trafiko goraino eramango da... Proiektuaren azpian aisiaz dagoen kontzeptuarekin ere ez gaitoz bat, gozatzeko dirua ordaindu behar delako ideia baitako egitasmoaren oinarrian.

3. Orain artekoa ez dugu desegokitzat jotzen, alegia nekazal parke publiko batena, jende guztiari irekia, Gipuzkoako beste herri batzuetan bezala. Hala ere, hobetu daiteke. Horretara-

ko Oiangu babestu egin behar da, Tokiko Agenda 21eko Diagnostikoan proposatzen den bezala, Natura Ondarea eta Paisaiaren Babeserako Interesgune bezala hartzea. Erabilerari dagokionez, Oianguko natur baliok ezagutzeko jarduera, ikastaroak antola daitezke, jolas herrikoiak, jatetxea eta aterpe txea mantentzea, Oiangu-Txiki baserria nekazaritzarako mantentzea...

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

*Gozatzeko sukaldeak.
El gusto por lo bien hecho.*

Con la colaboración de **ALPETECH**

Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84

elkano 11, ORDIZIA * 943 161 958 * galeon.com/sugaar

sugaar

>>>> JAI ZORIONTSUAK!!

ORDIZIAKO UDALA

Euskal Jaietara gonbidatzen zaitue; aukera ezin hobea geure lurraldeko ohiturak, kultura, produktuak etb... ezagutzeko.

APAIN

ETXEGINTZAKO MATERIALAK
Kontenedoreak
Garraioak garabirekin
Zeramikak eta bañu altzariak

TBF VELUX Styrodur

GAMMA

Mallutz, 6 - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 88 00 77 - Fax 943 88 82 60
E-mail: apain@apain-sl.com

m u j i k a
INTERIORISMO mujika@mujikadec.com

Tel: 943 16 00 54 Fax: 943 88 67 58
Kale Nagusia, 20 20200 BEASAIN